NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

5641

EBAZPENA, 2008ko irailaren 15ekoa, Zerbitzu Orokorren zuzendariarena, honen bidez, argitara ematen da arrantza-sektorerako baliabide ekonomikoen zenbateko berria, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko maiatzaren 19ko Aginduan jasotakoa. Agindu horrek irailaren 30eko 229/2003 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako 2008ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia («Elkarteak» Programa) jendaurrean jarri zuen.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko maiatzaren 19ko Aginduko ebazpenaren lehenengo puntuan ezartzen denez, deialdiaren barruan sektore bakoitzari eman beharreko laguntzen kopuru osoa eguneratu egin ahal izango da, baldin eta, indarreko legeriarekin bat etorriz, dagozkion aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Hain zuzen ere, agindu horrek irailaren 30eko 229/2003 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako 2008ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia («Elkarteak» Programa) jendaurrean jarri zuen (EHAA, 109. zk., 2008ko ekainaren 10ekoa). Bada, laguntzak eguneratuz gero, aldaketa horien ondorioz ateratzen den aurrekontuko diru-izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Zerbitzu Orokorren zuzendariaren ebazpen baten bidez, eta diru-laguntzak esleitu baino lehen.

Horrela, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak, dagozkion izapideak egin ondoren, 2008rako «Elkarteak» Programara bideratutako kredituak 54.500 euroan handitzea erabaki du arrantza-sektorerako. Programako gainontzeko kopuruak ez dira aldatuko. Ondorioz, Programa horretarako 2008ko ekitaldian esleituko diren laguntzen kopurua 1.574.900 eurokoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura.

Aurretik adierazitakoaren arabera, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita eta, orobat, aipaturiko 2008ko maiatzaren 19ko Aginduari jarraiki, bidezkoa da esandako aldaketa hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

5641

RESOLUCIÓN de 15 de septiembre de 2008, del Director de Servicios Generales, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos, para el sector pesquero, recogido en la Orden de 19 de mayo de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se hace pública, para el ejercicio 2008, la convocatoria de concesión de ayudas a las asociaciones y federaciones profesionales y empresariales del sector agrario, pesquero y alimentario de la CAPV en el marco del Decreto 229/2003, de 30 de septiembre (Programa «Elkarteak»).

En el resuelvo primero de la Orden de 19 de mayo de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se hace pública, para el ejercicio 2008, la convocatoria de concesión de ayudas a las asociaciones y federaciones profesionales y empresariales del sector agrario, pesquero y alimentario de la CAPV en el marco del Decreto 229/2003, de 30 de septiembre (Programa «Elkarteak») (BOPV, n.º 109, de 10 de junio de 2008), se establece que el volumen total de las ayudas a conceder para cada sector dentro de la convocatoria podrá ser actualizado en el caso de que se aprueben, de conformidad con la legislación vigente, las modificaciones presupuestarias pertinentes. En tal caso, la consignación presupuestaria que resulte de la aprobación de dichas modificaciones se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Director de Servicios Generales con carácter previo a la adjudicación de las ayudas.

En este sentido, la Dirección de Servicios Generales, ha acordado, previa realización de los trámites oportunos, la ampliación de los créditos propios destinados al «Programa Elkarteak» para el año 2008 en la cuantía de 54.500 euros, para el sector pesquero, permaneciendo el resto de cuantías del Programa sin variación. En consecuencia, el volumen de las ayudas a conceder para el ejercicio 2008 en el citado Programa asciende a la cantidad de 1.574.900 euros provenientes de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo con lo anteriormente dicho, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como en la mencionada Orden de 19 de mayo de 2008, procede la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la precitada ampliación.

Hori dela eta, honako hau

EBATZI DUT:

Argitara ematea arrantza sektorerako baliabide ekonomikoen zenbateko berria, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko maiatzaren 19ko Aginduan jasotakoa. Agindu horrek irailaren 30eko 229/2003 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako 2008ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia («Elkarteak» Programa) jendaurrean jarri zuen (EHAA, 109. zk., 2008ko ekainaren 10ekoa); hain zuzen ere, zenbatekoa 54.500 euro handiagoa izango da arrantza-sektorerako. Aipaturiko kopurua 2008rako ordainketa krediturari dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako funts propioetatik hartuta, eta Programako gainontzeko kopuruak ez dira aldatuko.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 15a.

Zerbitzu Orokorren zuzendaria,
IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA.

En su virtud,

RESUELVO:

Dar publicidad al nuevo importe de los recursos económicos, para el sector pesquero, recogido en la Orden de 19 de mayo de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se hace pública, para el ejercicio 2008, la convocatoria de concesión de ayudas a las asociaciones y federaciones profesionales y empresariales del sector agrario, pesquero y alimentario de la CAPV en el marco del Decreto 229/2003, de 30 de septiembre (Programa «Elkarteak») (BOPV, n.º 109, de 10 de junio de 2008), que asciende a la cantidad de 54.500 para el sector pesquero. La cantidad citada corresponden a crédito de pago para el año 2008 provenientes de fondos propios destinados en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, permaneciendo el resto de cuantías del Programa sin variación.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de septiembre de 2008.

El Director de Servicios Generales,
IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA.